

Negozio ideia

Guk proposatutako proiektua makina birziklatzaile batzuk dira. Ingurumena zaintzea bideratuta dagoen proiektua da.

Makina batzuk jarriko ditugu leku ezberdinetan jendeak zaborra (plastikozko botilak eta latak) hartu eta makinek dituzten zulo batzuetan botatzeko. Plastikozko botila bakoitzeko edo lata bakoitzeko puntu kopuru jakin bat edo diru kopuru txiki bat emango zaio bezeroari.

Makina hau dagoen tokiaren arabera emandako puntuak bertako dendetako deskontuak edo bertako produktuak lortzeko izango dira; hala nola, tren geltokietako makinetan tiketak edota zinemetako makinetan zinemarako sarrerak lortzeko dituzte parte hartzaileak. Puntuak gain, diru kopuru txikiak ere lor ditzakete, zentimo batzuk besterik ez, helburua ez baita zabor kopurua handitzea.

